



Prensa oharra

Elkartasun Zentimoak programaren elkartasun kausa berria

EROSKI-K ETA HAREN BEZEROEK NATURA ZAITZEN LAGUNDUKO DUTE WWF-REN ESKUTIK

- Espainiako WWFren aldeko dohaintzekin, natura zaintzeko ekimenak jarriko dira martxan: basoak gordetzea, hondartza eta ozeanoak babesteko programak eta klima aldaketa borrokatzeko ekintzak
- Horretaz gainera, borondatezko jarduerak antolatuko dituzte basoa berreskuratzeko eta ingurune naturalak garbitzeko EAEn, Galizian, Katalunian eta Balearretan.
- Helburua da balio natural handiko zonak berreskuratzea, eta eskualdez eskualde jendeak ingurune sano bat izatea denetariko jarduerak egiteko
- **Elkartasun Zentimoak** EROSKIren urteroko programa bat da, bezeroek dohaintzak egin ditzaketena hautaturiko gizarteko zenbait kausaren alde; kausa horiek hautatzeko, aintzat hartzen da 3.500 bazkide-bezero baino gehiagoren iritzia

Elorrio, 2021eko ekainaren 15a.- [EROSKI](#)k elkartasunezko beste lankidetzak kausa bat jarri du martxan, *Elkartasun Zentimoen* programaren barnean, natura babesten eta zaintzen laguntzeko. Espainiako WWFren aldeko dohaintzak natura zaintzeko ekimen jakinetara bideratuko dira: basoak babestea, hondartza eta ozeanoak kontserbatzeko programak eta klima aldaketa borrokatzeko ekintzak.

Horretaz gainera, boluntarioritza jarduerak antolatuko dira basoak berritzeko, lurzoruko erreak berreskuratzeko eta ingurumeneko zaborra garbitzeko. Ekintza horiek udazkenean gauzatuko dira, EAEn, Galizian, Katalunian eta Balearretan.

Helburua da basoen funtzioak berreskuratzea, berriz ere baliabideak eskain ditzaten (ura eta kalitatezko airea, suteen aurkako babesa, klimaren erregularizatzea, floraren eta faunaren habitata izatea eta gizakiari modua ematea aisialdiko espazioez gozatzeko naturarekin kontaktuan.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



"Ekainean Espainiako WWFri lagunduko diogu; mundu mailako erakunde bat da, eta lankidetzaz ibilbide luzea egin dugu elkarrekin. 2020. urteak erakutsi digu natura funtsezkoa dela gure iraupenerako eta sistema naturalak ezinbestekoak direla etorkizunerako. Naturari egiten dioguna ez diogu geure buruari egiten; hortaz, berehala pentsatu behar dugu nolako harremana nahi dugu berarekin", azaldu du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

Hauxe azaldu du Enrique Segoviak, Espainiako WWFko Zainketa zuzendariak: *"Ekintza kolektiboa ezinbestekoa da gure jarduera garatzeko, eta, alde horretatik, oso ongi baloratzen dugu ingurumenarenganako errespetuarekin eta zainketarekin kezkak dauden erakundeekin kolaborazioa. EROSKIrekin gauzatutako ekintza horri esker, funts gehiago izango dugu natura zaintzeko, eta gure jarduera ezagutarazi ahalko diegu haren bezeroei".*

Miloi bat euro Elkartasun Zentimoen programaren bitartez

EROSKI eta haren bezeroek lortu dute jada miloi bat euro bideratzea Elkartasun Zentimoen programa iraunkorraren bitartez, azaroaren 5ean martxan jarri zenetik. Orain arte, askotariko proiektuetan erakutsi du elkartasuna; besteak beste: Elikagaien Bankuei lagundu die elikagaiak emanez familia zaurgarrientzat; UNICEFekin, Mugarik Gabeko Medikuekin eta ACNURekin jardun da garapen bidean diren herrialdeetako haurrak txertatzen laguntzeko; Minbizia duten Haurren Gurasoen Espainiako Federazioari lagundu dio haur minbiziaren borrokan; Ana Bella Fundazioarekin eta Soledad Cazorla Diru Funtsarekin jardun da genero indarkeriaren biktimak izan diren emakumeei eta adingabeei laguntzeko; eta gaixotasun neurodegeneratiboak jotako familiei lagundu die, Neuroaliantzaren bitartez. Azken kausan, maiatzean, 170.000 euro baino gehiago biltzea lortu zen Elikagai Bankuen eta Caritasen alde, eta bildutakoa erabiliko da COVID-19aren larrialdiaren ondoren bazterketa arriskuan gelditu direnei laguntzeko.

EROSKIren bezeroek dohaintza txiki bat egin dezakete aldi bakoitzean dagoen ongintzako kausarako erosketa txartelarekin edo sakelakoarekin ordaintzen duten aldiro. Ekarpena, beti borondatezkoa eta isilpekoa, 10 zentimoko kopuru txiki sinboliko bat da 5-30 euroko erosketetan eta 20 zentimokoa 30 eurotik gorakoetan.

Laguntza hartzen duten erakundeak ere aldatu egiten dira maiztasun batez. Haiek hautatzeko, aintzat hartzen da 3.500 bazkide-bezerok baino gehiagok aldi bakoitzean nolako beharrak eta kezkak dituzten. 2021ean, erakunde hauek egongo dira lagundu beharrekoen zerrendan: haurren alde ari direnak, bazterketa arriskuan

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



direnei laguntzen dihardutenak, minbizia borrokatzen dutenak, desgaitasunak dituztenei laguntzen dietenak, gaixotasun arraroen aurka dihardutenak eta ingurumenaren alde dihardutenak.

"Elkartasun Zentimoak izeneko programa tresna eraginkorra da gure bezeroek modu errazean bidera dezaketelako bere konpromisoa gizarteko kausa askotarikoen alde. Programa iraunkor bat da, eta haren bitartez alor askotako erakundeei lagunduko diegu, betiere norabide jakin batean: gehien behar dutenei laguntzea", azaldu du Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak.

Hasieratik ari da EROSKI gizarte ekintza askotan, bereziki bizi ohitura osasungarrien promozioan, kontsumitzailearen hezkuntzan, ingurumenaren defentsan eta elkartasunean. 2020an, EROSKI 12 milioi euro baino gehiago eman dizkie janaritan, lehen mailako produktutan, eta ekarpen ekonomikotan denetarikoz gizarte erakundeei, COVID-19ak eragindako gizarte krisiak markatutako urte honetan.

WWFri buruz

WWF erakundeak 60 urte baino gehiago daramatza lanean ingurumenaren alde, etorkizunean elkarrekin harmonian bizi daitezen pertsonak eta natura. Horretarako, kontserbazio proiektu asko lantzen dituzte hainbat esparrutan, izan espezieak zaintzeko, izan itsasoak, ozeanoak, ibaiak, hezeguneak edo basoak babesteko, edo izan klima aldaketaren aurka egiteko.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)